

TESTUA:

**OLIBONDOEN ARTEKO BIDEZIDORRA**

-Ez ginen harritu gugana hiru aldiz etorri zelako, eta nola lokartu ginen berriz ere galdetzen diot nire buruari...

Joan ari zitzaien hitz egiten lur jota zeuden dizipuluen taldekoei, larunbat arratsalde amaigabe hartan. Lotsatuta kontatzen zien gau hartan baratzean gertatutakoa, Maisua otoitzean ari zen bitartean, haiek gelditu ziren tokitik oso hurbil.

Denek zekiten nola jotzen zuen bere lagunengana, bakardadean otoitz egitera joaten zenean izan ezik. Barren-barrenetik zeukan bakardadera joateko joera indartsua eta, une berean, adiskideak hurbilean izateko premia bizia. Hasieran merezi zutelako zuten: azken batez, den-dena utzi zuten hari jarraitu ahal izateko, eta urrats hura egin izanagatik harro sentitzen ziren; normaltzat jotzen zuten Maisua haien alde ateratzea, besteak beste larunbat batez galburuak hartu izatearen salaketatik defendatu zituenean; edo, mendian otoitz egiten ari zela, haizearen kontra arraunean larri ibili zireneko hartan, oinez uraren gainean etorri zitzaienean; edo inguruko herrixketatik leher eginda itzuli eta, atsedean hartzeko, toki bakarti batera eraman zituenean.

Baina laster, hark esaten zizkien gauzak eta haiengandik espero zuen portaera harrigarria, haien pentsaera, sentipenak, irritsak, handinahia eta haien arteko liskarrak gero eta arrotzagoak bihurtzen ari ziren eta bazirudien haien eta Maisuaren arteko tartea gero eta handiagoa zela, salbaezina. Batzuetan urrutiko lurralde batetik zetorren arrotz baten gisa sentitzen zuten, eta hizkuntza ulergaitz batean hitz egiten ziela.



Haietako inor ez zen tarte hura suntsitzeko gauza, baina Jesusek beti aurkitzen zuen horretarako bideren bat. Teilatua ireki eta perlesidunaren ohatila Jesusen ondoan jartzea lortu zutenen fedea miretsi zuen egunean Joanek zera esan zien besteei:

-Hori bada fedea, uste dut Jesusek ere baduela federik gudan: ikusi nola ari den harengandik urruntzen gaituzten oztupoak kentzen, gure presentziaren eta laguntasunaren premia balu bezala.

Hori izan zen ilbeteko gau hartan baratzean gertatutakoa: bakardadean otoitz egitera urrundu baino lehen, herio-setio batek bezala bihotza zapaltzen zion tristeziak hitz egin zien. Baina, haiek, afaritan, ardo gehiegi edan zuten eta loak hartzen zituen. Urruntzen ikusi zuten eta, gutxira, itzultzen. Horrela hiru aldiz. Haiek, ordea, lozorroan zeuden eta olibondoen arteko toki hura bakarrik izan zen Jesusen fedearen lekuko. Fede horrek makurrarazten zuen lurrera, bere gorputz abailduak Aitarekiko menpetasuna adieraz zezan, konfiantzaz. Horrexek bultzatu zuen adiskideengana, arnasa hartzeko ere haien beharrea balego bezala.

Gertatzen ari zena ez zuten guztiz ulertu baina, modu ilunean bazen ere, ohartu ziren bizitza Aitaren eskuetan jarri izanak azken orduari aurre egiteko adorea eman zion bezalaxe, haienganako sentitzen zuen maitasun berezi hura bere dezepzioa baino indartsuagoa izan zela, haiengan babesik aurkitu ez zuenean.



Eta, beharbada, ziurtasun horrek bultzatuko zituen jaikitza, Jesusek zutitzeko esan zienean.

Ordurako, zuzien dirdaiak argitu egiten zuen Maisuak hainbeste aldiz zeharkatutako bidezidorra, olibondoen artean.

#### **GALDERAK:**

**Historia hau nire historia da.** Ebanjelioek eskaintzen dizkiguten Getsemaniko kontakizunak sinestunaren bizitzako gauza funtsezko bat gogoratzen didate: Jesusek dizipuluekin egiten du Aitarenganako joan-etorriko bidaia; behin eta berriz jotzen du otoitzetik bere lagunekiko harremanetara eta nire oinak haren urratsetan jartzera gonbidatzen nau. Zera esango balit bezala: “Ez itzazu inoiz Jainkoa eta zure senideak bereizi.”

**Partekatu egiten dugu gure fedea.** Badago halako identifikazio bat senideekin eta Jainkoarekin jokatzeko dugun moduan, eta besteengan daukagun fedea da Jainkoagan daukaguna “ebalutzeko” modu bakarra. Besteengan sinesteko daukagun gaitasunaz edo zailtasunaz hitz egin dezakegu, eta zer-nolako egoeratan bizi izan dugun sinesmen eta konfiantza horren haustura.

## BERRI ONA:

### Markos 14, 32-42

Getsemani izeneko landa batera iritsi ziren, eta Jesusek esan zien bere ikasleei: «Zaudete hemen, nik otoitz egin bitartean». Pedro, Santiago eta Joan eraman zituen berekin. Ikara eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien: «Hiltzeko zorian nago tristuraz. Gelditu hemen eta zaudete erne». 35 Eta aurreraxeago joanik, lurrean erori eta otoizka ari zitzaion Jainkoari, urrun ziezaiola ordu hura, ahal bazen. Honela zioen: «Abba, Aita! Zure esku dago guztia; urrun ezazu niregandik edari samin hau! Baina egin bedi zure nahia, ez nirea».



Ikasleengana joan eta lotan aurkitu zituen. Pedrori esan zion: «Simon, lotan? Ordubeta ere ezin izan zara erne egon? Zaudete erne eta egizue otoitz, tentaldian ez erortzeko: gogoz kartsu izan arren, ahula baita gizakia ». Berrito aldendu eta otoitz egin zuen, lehengo hitz berak esanez. Berrito itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten; haiek ez zekiten zer esan. Joan zitzaien hirugarren aldiz eta esan zien: «Egin lo eta hartu atsedeen! Kito! Iritsi da ordua: hona Gizonaren Semea bekatarien eskuetara emana. Jaiki, goazen, hemen da salduko nauena!»

## OTOITZA: GOI-GOIKOAREN ATERPEAN

Goi-goikoaren aterpean bizi zaren horrek,  
gaua Ahaltsuaren itzalpean ematen duzun horrek, esazu:

*“Oi Jauna, zu ene babesleku eta gaztelu;  
ene Jainko, zuregan dut uste on!”*

Begiak zure Jainkoarengana jaso  
eta, laguntza eske,  
zeruari begiratzen diozun horrek, esaiozu Jaunari:  
*“Ene besarkada, ene etxe,  
gauerako zorioneko sabai,  
su eta supazter,  
afari luze eta gozo,  
ene Jainko, zukan geldituko naiz”.*

Bidean bakarrik zoazelako  
begiak iluntasunez beteta dituzun horrek,  
izua bakardadean  
eta heriotza arnasten duzun isiltasunean  
xurgatzen dituzun horrek, esaiozu Jaunari:

*“Ene argi, ene musika,  
ene bizi, ene bake dizdizari, ene presentzia ozen,  
ene Jainko, zukan dut uste on”.*

(...)

Berak libratuko zaitu ehiztariaren saretik



eta izurri galgarritik.  
Zeure buruaren loturetatik askatuko zaitu,  
zeure sareen korapilotik.

Zeure buruaren hesietatik aterako zaitu,  
espazio zabalak erakutsiko dizkizu  
goizero aurkitu dezazun,  
herriko plaza zaratatsuan,  
bertako seme-alaben murmurio gero eta ozenagoetan.

Bere hegalpean emango dizu gerizpe,  
Haren lumapean izango duzu babesleku,  
senideen berotasuna eginda zure berotasun.

Ez diozu beldurrik izango gauaren izuari,  
ez gau itxiari.  
Ez espantuak, ez izurriteak, ez geziak  
ez zaituzte inoiz gaudituko,  
Jauna hartu baituzu babesleku,  
Goi-Goikoa bizileku.  
Etorriko dira gaixotasuna eta zorigaitza,  
iluntasunean eta gerra-hotsean,  
etorriko dira, oinazez jantzita, etsaiak, bekozko,  
baina ez zaituzte gaudituko.

Jainkoak ez ditu laburrago egingo egun tristeak,  
ez dizkizu bidetik kenduko oztoparriak;  
baina eskutik hartuko zaitu  
zure oinak behaztopa ez dezan harrian,  
gizon-emakume izatearen bide malkarrak  
Haren besoetatik inoiz ere urrundu ez zaitzan.

(...)

*“Niri atxikia dagoenez gero, onik aterako dut,  
toki seguruan jarriko, aitortzen nauelako;  
dei egitean, erantzun egingo diot.  
Bizitzako larrialdiak pairatuko ditu,  
baina hurbilean izango du nire eskua.  
Defendatu egingo dut, goratu...  
Eta ibilbidearen neke gorrian  
neure salbamena gozaraziko diot.”*

*(Florentino Ulibarri)*